

BI ARGITARAPEN BERRI

1

LINO AKESOLOREN IDANLAN GUZTIAK

Lino Akesoloren idazlanez bi liburuki handi argitaratu ondoren, oraindik hirugarren bat osatzeko adina lan han-hor-hemen sakabanaturik izango zelako susmoa zuen haiek prestatu zituen Julen Urkizak. Halaxe gertatu da.

Azken liburuki honek, haren azken hiru urteetako lanak eta haren gelako eskuskribuen artean aurkitutako lehenagoko idazlan batzu biltzen ditu.

Eskuskribu ugari utzi zizkigun. Paper idatziak, xumeak izan arren, gogoko zituen. Ez zituen, ez, zakarrontzirako. Horrela, haren gela arakatzean, han agertu ziren pakete, kutxa, kartazal, liburu eta abarretan nahasian, baina ongi gorderik. Hauen artean, idazlanak, bertsoak, dokumentu pertsonalak eta beste batzurenak daude. Prestatzaileak, materiale guztia sailkatu, hautaketa zehatza egin eta zazpi ataletan eratu du liburua. Aurreko bi liburukien egitura berbera du. Dena dela, aurrekoetan datorren hirugarren atalik ez du honek, baina bai beste bi atal berri: VI Bertso eta olerkiak, VII Kronikari. Hona hemen kapituluak hurrenez hurren sailkaturik:

grina onbidetik kanpora ixurtzen bada, aulago geldituko dala onerako. Orrela, borondatea uskerietara bananduta daukan arima uraren antzekoa da; urak berantza egiteko ixurbiderik badau, eztau gorantza egingo, eta alperrik galtzen da. Orregaitik esan eban antziñako Jakob zanak, bere semeek bein pekatu bati amor emon eutsonean ur ixuriaren antzeko egin zala: *Ura lez ixuri az, eztao gora egingo* (As 49,4). Onela esan baleutso lez: Grinen aldera ixuri azaleko, ez dok onbidean aurreratuko. Ur beroak bere, estaldu barik dagoanean, beroa errez galtzen dauan antzera eta usain ongarriek, estalkia kendu ezkerok, euren usain ona errez galtzen daben lez, era berean arimak bere grinak Jainkoaganako grina batera biribiltzen ezpaditu, galdu egiten ditu onerako indarra eta kemena. Ori ulerturik, Dabid'ek Jainkoarekin itz egiñez esan eban: *Zuretzat gordeko dot neure indarra* (Sal 58,10). Au da, Zuretzat bakarrik gordeko dot neure grinan indarra.

3. Argi dago, bada, grinak ezabela ariman onik ezarten, bai dauana kentzen, eta ezi egiten ezpaditu, ez tira geldituko berari sugegorrikumeak amari egiten deutsoena egin arte; amaren sabelean azitakoan ama bera jane ta il egiten dabela, amaren kaltetan eurak bizirik geldituz. Orrenbesterañoko kaltea egiten dabe ezibako grinak bere: arima Jainkoaren aurrerako il egiten dabe, eurak lenago berak il eztituelako. Orregaitik diño Sirak'ek: *Ken egidazuz sabeleko grinak, ez nagiela aragiaren gurariak menderatu* (23,6). Bestela eurak bakarrik biziko dira ariman.

4. Baiña orrenbesterañoko eldu ezik bere, oso tamalgarri da, grinak jabetu jakozanean, arima zelan dauken ikustea, zein gozkatx bere huruarekin, zein legor lagun urkoaren aldera, eta zein sor eta nagi Jainkoagazko gauzetan. Eztago aldarte txarrik, geixo bat ibilteko ain astun eta sor edo jangartsuago ipiñiko dauanik, grinak arima onbideari ekiteko astun eta mukerrago egiten daben baiño; oi danez arima askok Jainkoagana aurrera egiteko ardurarik eta gogo andirik ez izatea ortik dator, Jainkoaganako ez tiran zaletasun eta grinak garbitu barik cukitetik.

- I. EUSKERA - LITERATURA - KRITIKA
- II. EUSKERA ETA BIBLIA
- [III. EUSKAL TESTODUN IDAZLANAK]
- IV. KONDAIRA ETA BIOGRAFI ARTIKULU ETA OARRAK
- V. LIBURUEN BARRI-EMOTEAK
- VI. BERTSO ETA OLERKIAK
- VII. KRONIKARI

Euskara eta gramatikaz, lan apartak burutu zituen nire eritzi eta idazle klasikoen testuz ongi jantziak. Bizpahiru hautatzekotan, hauek begiz jo ditut:

«-ko atzizkiaren erabillera bi»

«Baldintzazko esaldi batzuen berezitasuna»

Euskal idazleei dagokien sailean, «Zer da Axularren **ekidin?** lan interesgarria dator. Hau Villasanteren omenaldirako prestatu zuen, baina ortografia zaharrean, hots, Euskaltzaindiaren arauetara makurtu gabe idatzi zuelako, erakunde honek ez zion lana argitaratu nahi izan...

«Ekidin» ez omen da aditza, aditz bat erroan duen aditzondua edo izenondua baizik. «-Kidin orrekin osatutako itzak ez dute ez deklinabiderik ez aditz-jokorik, beti soil-soilik agertu izan dira. Ez dezagun aditza dalakotzat ez **ekiditen**, ez **ekidingo**, ez **ekiditeko** asmatu, ez eta **ekidin** du edo **ekidin zuen**, eta olako aditz-jokorik».

Geroxeago Lafitteren GRAMMAIRE BASQUE liburuko 443 zenbakia aipatzen digu. Hor, Lafittek, aditzen baten erroaz eta -kizun / -kidin atzizkiaz osatzen diren izenondoen berri ematen du. Beti soilik erabiltzekoak omen dira; bi atzizkiok gerokotasuna adierazten dutela dio. Lafittek «egikidin» dakarrela, «nere ustez **ekidin** honen kidea». Gehiago argitzearren edo, **harkidin**, **jankidin**, **edankidin** hitzak tartekatzen ditu beste autore batzurengandik harturik. Beraz, **ekidin** eta **eginkizun** hitzen arteko kidetasuna ezar daiteke... **Ekidin** euskarazko hitz zaharra eta jatorra dela, baina gramatikariek eta herriak eman dioten adieratik ateratzea ez dela bidezko, esango digu. Behin

honezkero berandu ere izan daiteke atzera egiteko, gaztelaniazko «evitar» adieran erruz erabilia baita.

Ezkertzekoa da Lino Akesolok egin zuen ahalegina euskararen zenbait gauza ilun argitzeko; eta hori, bai gramatika arloan, bai idazleen testuetan eta bai biografi eta histori arloan. Liburuki honetan bertan dator honelako beste lantxo bat ere, «Etxeberri Ziburukoaren bertso bi argitzen» deritzona. Hark sekula ere ez zituen inorenetik osatzen bere lanak. Ikerlanean murgildu ohi zen, beste inork arakatu gabeko zurkulu ezkutuetaraino barneratuz.

Bertso eta Olerkiak

Hauen artean bi sail bereizi beharra dago: alde batetik bertso jatorriak eta bestetik itzulpenak. Azken hauetan benetako maisu genuen: Aita Lino. Hori ongi frogatua du Joan Gurutzekoaren poesiak itzultzean eta horretan jakintsuak direnek aho batez aitortu izan dute, esaterako, Patxi Altuna euskaltzainak. Zorionez, lan oparoa burutu du arlo horretan, aipatutakoez gainera, salmoak, liturgiako kantika eta himnoak, Ordenako santuei eskainitako hainbat kantaren hitzak eta abar.

Bertso jatorren artean, olerki onak ere baditu banaka batzu, baina kasurik gehienetan, ez du goi-mailako olerkirik egiteko uziarik ere. Ia beti, inguruko giroa alaitzeko, norbait zoriontzeko, jai, bilera, bazkalondo eta horrelako zeretan kantatzeko ontzen zituen bertsoak dira; beraz, bertso xumeak, baina ongi eginak.

Kronikari

Begoñako Karmeloko kronikari genuen. Komentuan norbait hiltzen zenean ere nekrologiak berak idazten zituen eskuarki. Horregatik liburu honen prestatzaileak, bi adibidetxo jarri nahi izan dizkigu bakoitzetik, horren lekukotasuna hortxe gera dadin.

Eta besterik ez, irakurle. Lerro hauek haren idazlanetan murgiltzeko gogoia piztu balizute, zoriontsu nintzateke.

Luis Baraiazarra